

CONCEPCION ARENAL VI. SARIAK

GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNA 2026

Concepcion Arenal Sarien edizio berria izaten dugu urtero, NUPeko Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bultzatuta, Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialarekin lankidetzan. Ekimen honen bidez, gizarte-lanaren balioa eta gure gizartearen ongizate eta kohesioari egiten dion funtsezko ekarpena aitortzen dira.

Sarien izenak Concepcion Arenal omentzen du; hau da, Espainiako gizarte-pentsamenduaren funtsezko figura, feminismoaren eta gizarte-lanaren aitzindaria izandakoa XIX. mendearen amaieran. Giza duintasuna, justizia soziala eta erantzukizun kolektiboa defendatzen zituen, eta horrek erreferentzia etikoa eta profesionala izaten jarraitzen du gaur egun ere.

Sarien bitartez, gizarte-langintzako profesionalen lana ikusarazi eta aitortu nahi da, horien ibilbideak, konpromisoak eta praktikek Concepcion Arenalek defendatutako balioak islatzen baitituzte, eta lanbidea gidatzen jarraitzen dute, gainera.

SARIAREN KATEGORIAK

- **Lehen kategoria: Lan profesionalarentzako saria:** gizarte-langile batentzako saria, bere ibilbidearengatik eta gizarte-lanaren garapenari egindako ekarpenarengatik.
- **Bigarren kategoria: Ikerketa-lanarentzako saria:** gizarte-langile batentzako saria, bere ikerketa-ibilbidearengatik eta gizarte-lanean ezagutzaren aurrerapenerako emandako laguntzarengatik.
- **Hirugarren kategoria: Gizarte Langintzaren Jardunbide Egokiarentzako saria:** lanbide-esperientzia batentzako saria, gizarte-arloko esku-hartzean bere kalitatea, gizarte-eragina eta berrikuntza medio nabarmentzeagatik.

BALDINTZA OROKORRAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gizarte-lanak gizarteari egin dion ekarpena hobetzen eta ikusarazten nabarmen lagundu izana.
- Portaera etiko eta deontologiko akatsik gabea izatea.
- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialean elkargokide izatea. Hirugarren kategorian, profesionalen talde bat edo erakunde bat bada, gutxienez pertsona batek izan beharko du elkargokide.

BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

Lan profesionala

- Lanean emandako urte-kopuru esanguratsua egiaztatzea.
- Lanbide-jardunean lorpen garrantzitsuak lortu izana.
- Praktiketako ikasleen tutoretzarekiko konpromiso iraunkorra izatea.

Ikerketa-lana

- Lanean emandako urte-kopuru esanguratsua egiaztatzea.
- Gizarte-lana garatzeko gai interesgarriekin loturiko ikerketetan parte hartu izana.
- Gai horiekin lotutako argitalpenak (artikuluak, eskuliburuak edo liburuak) izatea.

Gizarte Laneko Jardunbide Egokia

- Gizarte-lanaren eremuan garatua izatea.
- Amaituta edo gauzatze-fase aurreratuan egotea.
- Azken bi urteetan burutua izatea.

HAUTAGAIEN AURKEZPENA

- Lehenengo bi kategorietan ez da auto hautagaitzarik onartuko.
- Hautagaiak Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko elkargokideek edo NUPeko Gizarte Langintzaren Graduko irakasleek bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte.

- Hautagaitzak Fakultateko idazkaritzaren (secretaria.fchse@unavarra.es) edo Elkargoko idazkaritzaren (navarra@cgtrabajosocial.es) bidez aurkeztuko dira. Ondorengo informazioa jasotzen duen dokumentua aurkeztuko da:

- Proposatutako hautagaiaren edo lan-taldearen, erakundearen eta abarren **izen-abizenak** (Jardunbide Egokien kasuan).
- Hautagaitza zein **kategoriatara** aurkezten den.
- **Curriculumaren aipamen laburra**, proposatzen den kategoriaren ezaugarri orokorrak eta espezifikoak zenbateraino betetzen diren erakusteko; halaber, sarietarako hautagai izateko proposamenaren oinarri diren merezimenduak.
- Sarietarako hautagai gisa proposatzen den pertsonarekin harremanetan jartzeko datuak.

SARITUAK HAUTATZEA

Saridunak honako hauek osatutako epaimahaiak hautatuko ditu:

- NUPeko Gizarte, Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa.
- NUPeko Gizarte Langintzaren Graduko dekanorde arduraduna.
- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko lehendakaria.
- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialean NUPekin harremanak izateaz arduratzen den kidea.

Epaimahaiak, baldintzak betetzen dituzten hautagaien artean, saritutako pertsonak edo jardunbideak hautatuko ditu.

Sariek ez dute zuzkidura ekonomikorik; hots, plaka oroigarri bat emango da.

EGUTEGIA

Hautagaiak aurkezteko epea: 2026ko otsailaren 8ra bitarte (egun hori barne).

Epaimahaiaren erabakia: epea itxi eta gehienez 15 egun natural.

Sari-banaketa: 2026ko martxoaren 17an, Gizarte Langintzaren Munduko Eguna dela-eta.